

# URUMEAKO **kronika**

2016/09/13



PDF

**HERNANI** Irailak 13



Gondolinean 'paddle surf' egin ahal izango da, Urumean gora.

[albisteak](#)//ERAKUSKETA - SAGARDO IBIAIAK BIZITZA ITURRI

## Urumean barrena paddle eta bisita, erakusketa hasteko

'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa jarriko da irailaren 16tik 25era, eta inauguratzeko, ekitaldi berezia izango da 17an.

**ASTIGARRAGA**

2016/09/10 00:00 Larunbata

Irailean, ikasturte berriari hasiera ematen zaion bezala, sagardo berria egiten hasteko prozesuari ere hasiera ematen zaio, eta horrekin batera, sagarra eta sagardoa protagonista izango dituzten hainbat ekitaldi izango dira Astigarragan.

Horietako bat izango da Sagardo ibaiak, bizitza iturri erakusketa. Irailaren 16tik 25era bitartean ikusi ahal izango da Sagardoetxean, eta 16an, 19:00etan inauguratuko da, Lourdes Odriozola historialariak gidatutako bisitarekin. Gainera, 17an, beste ekitaldi berezi bat prestatu da, eta izenematea irekita dago.

**Urumean gora paddle surf edo zutikako arrauna, eta bisita gidatua**

Hain zuzen, arratsalde pasa eder bat egiteko aukera izango da irailaren 17an, bezperan irekiko den erakusketari lotuta.

Arratsaldeko 15:30etan Donostiako Arraun Kirolak elkartetik abiatuta, paddle surf edo gondolin gaineke zutikako arrauna eginez, Urumean gora igotzeko aukera izango da, Lourdes Odriozolak azalpenak ematen dituela. Ergobiako zubiraino, 6,26km-ko ibilbidea egingo da, eta 17:30ak aldera bukatzea espero da. Segidan bisita gidatua egingo da Ergobiako sagardotegietan barrena, eta sagardoa eta pintxoak dastatzeko aukera izango da, musikak lagunduta. Parte hartu nahi dutenek irekita daukate izenematea, 20 euroan, [www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com) webgunean.

Paddle surf edo zutikako arrauna egin eta sagardoa eta pintxoak dastatzeko, izena eman behar da: ‘[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)’

**Oria eta Urumea, sagardo ibaiak**

Erakusketa, irailaren 16tik aurrera ikusi ahal izango da, eta bertan aukera izango da ezagutzeko, Urumea eta Oria ibaiek sagardogintzarekin izan duten lotura eta honek Gipuzkoako garapen historikoan izandako garrantzia.

**Sagar Uzta jaia, irailaren 22tik 25era**

Gerora ere, sagarra izango da protagonista. Izan ere, Sagar Uzta jaia egingo da irailaren 22tik 25era. Besteak beste, Sagardobide Erronka edota Kizki Eguna egingo dira 24 eta 25ean, hurrenez hurren, eta azken honetarako izenematea ere irekita dago aipatutako webgunean.




Izena\*

Eposta helbidea\*

Iruzkina\*

Captcha\*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzailerik](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



GEHIGARRI BEREZIA





**HERNANI**  
Irailak 13

## Puri-Purian

*'Euskal balezaleen triskantza' ... (2)*

*Begiratu eta pentsatu ... (1)*

*Animatu Barrenetxea eta ... (3)*

*Bertso berriak, isiltasunari ... (1)*

*Biterin ikastaroren bat ... (1)*

*«Gutxienekoa iruditzen zaigu, ... (1)*

*Hernaniko hondakin bilketa ... (2)*

*31 ikastaro aukeran, ... (1)*

*Arre arre mandako, ... (2)*

*«Gertatutakoa akats larria ... (1)*

## Gida komertziala








## Arriatzu

Berriro zuekin goiz eta arratsaldez

### Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;  
iturgintza, elektrizitatea, pintura,  
berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefonoa: 616886660**

*Iñigo Royo Masajista. Masajea,  
naturopatia, osteopatia, kinesologia,  
reiki, homeopatia, akupuntura...  
(Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

**Gaur**



30°

15°

**Bihar**



18°

14°

**Etzi**



19°

11°

[Aemet](#) eskaintako datuak

### Azken argazkiak



Gabon, Txirrita



Zikuñagako jaiak - Iga...



Erremontea - Banakako ...



Zikuñagako jaiak 2016 ...



Latsunbeberri-Marielut...



Latsunbeberri-Marielut...

## Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

### ARGITARATZAILEA



### ZEIN GARA



### KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120  
 Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714  
 E-maila: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)  
[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus)  
[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus)



### LAGUNTZAILEAK

